

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**122/2019 Foru Agindua, apirilaren 25ekoa, zeinaren bidez baimentzen baita María Lourdes Miranda Lafuenteren behin-behineko izendapena egitea Lantziego, Bilar eta Kripango udalen elkarteko idazkari lanpostua bete dezan**

Aldundian aurkeztu den idazki bidez, Lantziego, Bilar eta Kripango udalen elkarteak eskatu du María Lourdes Miranda Lafuenteren behin-behineko izendapena egitea idazkari lanpostua betetzeko, lanpostu horren titular izaskun García Zorzano andrea Elciegoko Udaleko idazkari lanpostua betetzen ari baita zerbitzu eginkizunetan.

Horren harira, adierazi behar da elkarte horrek iragarkia argitaratu zuela ALHAOn 2019ko apirilaren 10ean (44 zk.) gaikuntza nazionalako toki administrazioeko funtzionarioek behin-behineko izendapen eskaerak egin zitzaizkizaten, lanpostua metaketa bidez edo zerbitzu eginkizunetan betetzeko, baina elkarte horrek adierazi du ez dela eskaerarik aurkeztu.

128/2018 Errege Dekretuak, zeinaren bidez Estaturako gaikuntza duten toki administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen baita, 52.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ezinezkoa denean postua aurreikusitako prozeduren bidez betetzea (behin-behineko izendapena, aldi baterako lan metaketa eta zerbitzu eginkizunak), autonomia erkidegoei eska dakieke behin-behinean izenda dezatela funtzionario bat, zeinak prestakuntza tekniko egokia eta, ahal den guztietan, A1 azpitaldekoa edo unibertsitate titulua izan beharko baitu. Nolanahi ere, 5.000 biztanletik gorako toki korporazioetan, A1 azpitaldeko karrerako funtzionario bat izan behar da.

Lantziego, Bilar eta Kripango udalen elkarteak proposatu du elkarteko karrerako funtzionario María Lourdes Miranda Lafuenteren behin-behineko izendapena egitea.

Autonomia erkidegoko organo eskudunak egingo du izendapena, eta espedientean egiaztatuta geratu beharko da ezinezkoa izan dela lanpostua gaikuntza nazionalako funtzionario batek betetzea.

Horiek horrela, egoki jotzen da Lantziego, Bilar eta Kripango udalen elkarteak egindako izendapen proposamena onartzea.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa –Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du 27/2013 Lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta–, non finkatzen baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. María Lourdes Miranda Lafuenteren izendapena egitea, Bilar eta Kripango udalen elkarteko idazkari lanpostua behin-behinean bete dezan 2019ko apirilaren 17tik aurrerako ondorioekin.

Bigarrena. Izendapen honek lanpostuaren titularra itzuli arte izango ditu ondorioak. Dena den, edozein unetan ezeztatu ahal izango da Lantziego, Billar eta Kripango udalen elkarteak hala eskatuta, edo hura kargutik kendu horretarako legezko kausaren bat tarteko.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Lantziego, Billar eta Kripango udalen elkarteari, eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea ALHAOn argitara dadila.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 25a

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta*

*Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*

*MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO*

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

*IÑAKI GUILLERNA SAENZ*